


ALTZAKO SAN MARTZIALAK

TRIKITIXA

Dantzaldi ugari daude festetan eta baita trikitixa ere. Trikiti taldeak igandean arituko da gaueko 11.30etan frontoian.



ereserkia abestuko da.

00.10etan: Leizaran taldearekin dantzaldia.

00.30etan: Danborradaren bigarren zatia.

ASTEARTEA, EKAINAK 30 (San Martzial)

09.00etan: Diana, Ergoiengo «Marai» trikitixa taldearekin.

11.00etan: Meza San Martzial elizan.

11.30etan: Herri jolasak 14 urte arteko haurrentzat.
Eskuzko pilota partiduak.

16.00etan: Tailerren topaketa.

18.00etan: Esku pilota: Dominguez-Unanue / Ibarguren-Baez
Lau t'erdian: Castellanos / Hombre
Karrete-De Santos / Vicente-Gastesi

18.30etan: Haurren danborrada kaleetan zehar.

20.00etan: Buruhandiak.

23.00etan: Lotso taldearekin dantzaldia.

ASTEAZKENA, UZTAILAK 1 (Haur eta jubilatuen eguna)

10.30etan: Kirol olimpiadak San Jose de Calasanz ikastetxean.

11.00etan: Meza.

12.00etan: XIII. Lagun arteko toka txapelketa.

16.00etan: Kartelen lehiaketa.

18.15etan: Merienda eta Lazarraga orkestrarekin dantzaldia jubilatuen egoitzan.

18.30etan: Hankagorri taldearen «Bond-Eroak» antzezlanaren San Martzial plazan.

20.00etan: Txokolate jana bolatokian.

22.00etan: Karaoke lehiaketa.

OSTEGUNA, UZTAILAK 2 (Santa Isabel)

11.00etan: Meza.

12.00etan: Idi dema 2.000 kiloko harriarekin.

13.30etan: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariak Udaletxeko balkoitik.

18.00etan: Idi dema.

19.30etan: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariak.

23.00etan: Cam taldearekin dantzaldia.

00.00etan: Zezensuzkoa kaleetan zehar.

I.E.S. ALTZA B.H.I.

12 URTETIK 20ra BITARTEKO IKASTETXEA

Altza pasealekua 43 - 20017 DONOSTIA - Tfnoa.: (943) 351044 - Faxa: (943) 351593

A, B eta D ereduak

✓ DBH

✓ BATXILERGOA:

- Natur eta Osasun Zientziak (Aukera teknologikoa barne)
- Giza eta Gizarte Zientziak

✓ MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK (1999-2000)

- Kontsumitzailearen Zerbitzuak
- Gizarte eta Kultur Animazioa

JUBILATUEN

taberna

*Festetan
ere giro
ona!*

Nao etxea z/g
ALTZA
Tfnoa.: (943) 35.29.28

M^o CARMEN


taberna

Roteta Goikoa 2

PELUQUERIA
URBANS
CABALLEROS

ZURE IRUDIA ZAINZEN DUGU
ZURE ILEA ZAINDUZ

SANTA BARBARA, 2 (ALTZA)
TFNOA.: (943) 35 41 41
20017 DONOSTIA



ALTZA.
Tfnoa.: (943) 35 40 38

GROS. Tfnoa.: (943) 32 18 77

IRUN. Tfnoa.: (943) 61 95 44

ORERETA. Tfnoa.: (943) 52 20 00

BEASAIN. Tfnoa.: (943) 16 22 33

OIARTZUN. Tfnoa.: (943) 34 12 00



HARATEGIA • URDAITEGIA • OILASKO-DENDA

TELESFORO SANTOS

Bertako okela
Etixerako zerbitzua

Roteta auzoa, 9. eraikuntza, B etxea • Tfnoak.: (943) 357062 eta (943) 351561

Antigua-Ibaeta

Erika Erkizia (Inoa.: 943 211681)

Kaxiopea emakumeentzat sortu den elkarte da eta Ibaetan du egoitza. Elkarte honen helburu nagusia «emakumeentzako topagune bihurtzea da» diosku diruzaina den Maribel Elgarrestak.

70 bazkide

Emakumeentzako elkarte gastronomikoa izateaz gain, ospakizunak, afariak edo bazkariak egiteko eta lagunekin elkartzeko txokoa ere bada.

Dagoeneko zenbait ekitaldi antolatu dituzte, baina oraindik ez da ofizialki inauguratu arrazoi ekonomikoak direla medio. Elkarteak, 70 bazkide ditu baina «ehun izate gustatuko litzaiguke» dio Maribelek.


Kaxiopea elkarteko bazkide izateko emakume izan behar da, baina ez zaizkie ateak erabat itxi gizona koei eta haurrei. «Afaltzera edo bazkaltzera etor daitezke baina ez antolatzen diren ekitaldietara» argitu digu. Bazkide izateko 50.000 pezeta ordaindu behar dira sarrera gisa eta 3.000 pezeta hilero.

Jende mota asko

Elkartea ez da alde

«Ideologia ezberdineko emakumeak bildu nahi ditugu»

Kaxiopea, emakumeen lehen elkarte



Argazkia: Imanol Otegi

Hirurogeita hamar bazkide ditu gaur egun Kaxiopea elkarteak. Besteak beste, Idoia Estornes entziklopedigilea eta Lola Valverde EHUko irakaslea.

aurretik dagoen talde batean oinarritu. «Ideologia ezberdineko emakumeak bildu nahi ditugu» adierazi du Maribelek.

Kaxiopea gertutik ezagutu nahi dutenek, hilaren 27an egingo den jaialdira hurbildu daitezke, gay eta lesbianen harrotasun eguna ospatuko baita. Urriaren 2an, berriz, Pilar Rahola,

«Bazkide izateko emakume izan behar da»

Partit Per La Independenciako lehendakariordea etorriko da hitzaldi bat emate-

ra arratsaldeko 19.00etan. Hitzaldiaren gaia: Emakumea agintearen erronkaren aurrean. Raholaz gain, beste erakunde eta alderdiko emakumeek ere parte hartuko dute.

Bazkide izan nahi duten emakumeek edo informazio zabalagoa izateko 943-284363 edota 943-322328 telefono zenbakietara dei dezakete.

Jubilatuak ere artistak dira

Ekimen handiko jubilatuak ditugu auzoan eta ekitaldi ugari antolatzen dituzte. Besteak beste, artistak ere badira beraien artean eta urtean zehar margotzen aritzen dira. Lan hauek bildu egin dituzte eta hilaren 29tik urriaren 3ra arte ikusgai egongo dira beraien egoitzan. Erakusketa honekin bukatuko da aurtengo jaso duten margo ikastaroa.

Margotzeaz gain, bidaiatzea ere gustoko dute jubilatuak eta urriaren 11n Santander aldera joango dira. Prezioa 2.000 pezeta dira.

Azoka hilaren 28an

Herri produktuen azoka Gaskuña plazan egingo da datorren igandean, ekainak 28. Goizeko 09.00etatik 14.00ak arte zabalik egongo da.

Haurrak ere jaietan

Altzako aurtengo San Martzialetan giro aparta bizi izan da. Txikientzat ekitaldi ugari antolatu ziren arren, beraiantzat jarritako jokuek eta buruhandiek izan zuten arrakasta gehien. Baina azpimarratzeko ekitaldien artean, haur danborrada dugu nagusi. Haurrek ilusio osoz astindu zituzten danborrak. Bestalde, frontoia gainezka egon zen pilota partiduak ikusteko, eta ikusleek gogotik txalotu zituzten pilotariak.

Argazkiak: Imanol Otegi.

